



Sagarrak biltzeko makina. GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEA

PROIEKTU BERRITZAILEAK

Sagardoaren ekoizpena etengabe berritzen ari da. Sagarrak biltzeko makina eta upelak monitorizatzeako egitasmo bat aurkeztu dituzte azken hilabeteetan.

Sagarrak biltzeko makina etorkizunerako bide bat da. 2017an 7 sagardogilek beren 18 lursailetan ibili dute makina hori euren sagar bilketarako. Guztira, 40 hektarea bil ditzake makinak. Proiektu pilotu arrakastatsua izan da, eta datorren urteari begira lan zehatza utzi du: sagastia egokitzea makinak errazago ibiltzeko.

Sagarrak biltzeko makina irailean aurkeztu zuten Adunako Aburuza sagardotegiko sagastian. Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Belarmendi enpresak elkarlanean martxan jarri dute proiektu pilotua. Mendiko nekazaritzaren arloan, makineria zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa da Belarmendi.

Sagar biltzea eskuz egiten da hein handi batean, baina geroz eta zailtasun handiagoak daude sagarrak biltzeko jendea aurkitzeko, eta hilabete edo hilabete eta erdian Gipuzkoako sagardo sagar guztia bildu ahal izateko. Horri guztiari aurre egiteko jarri dute martxan sagar biltzeko makinaren proiektu-

tu. Hain zuzen, 2017ko uzta oparoan bildu diren sagar batzuk makina horrek bilduak izan dira.

Sagardogintzan, ikerketak beste arlo batzuetan ere egiten ari dira. Azken urteetan, azterketa ugari egin dira sagarren inguruan eta sagar mota desberdinek ematen dituzten sagardoaren inguruan, eta bide horretan jarraituko da 2018an eta hurrengo urteetan ere.

Innokupela sistema

Hazi fundazioak eta Esafek (Euskal Sagardogileen Federazioa) lanikidetzan eginiko proiektu bat da Innokupela. Sagardotegietako upategiak monitorizatzeako sistema teknologiko berriak ezartzea da bere helburua. Produktuaren trazabilitatearen inguruko kanpo berme bat izango litzake, bere egiaztagirirako.

Innokupela proiektuak sistema teknologiko berriak aztertzen ari da, sagardoaren upelen arteko mugimenduak monitorizatzeako. Horretarako, merkatuan dauden gailu ezberdinak

bilatzen, aukeratzen eta aztertzen ari dira.

Gaur egun, upelen betetzea eta sagardoaren nahastearen erregistroak eskuz idatzi edo informatikoki gordeta egiten dira, eta upelaren ahokadura irekia bermatzen da prozesu hori ondo egin dela. Innokupelak berriz, upelak denboran zehar dituen nibel ezberdinak aztertzen ditu, beste datu batzuen artean. Neurketa horiek aurretiaz zehaztutako denbora bitartean egiten dira. Jasotako informazioa biltegi plataformara batera bidaltzen da, eman diren aldaketak zeintzuk izan diren eta noiz izan diren jakiteko.

Orain arte probatutako neurketa sistemek ultrasoinuak eta uhin elektromagnetikoak erabiltzen dituzte. Aterako informazioa, sagardotegiko langileek jasotako trazabilitate erregistroarekin alderatzen da. Horrela, upelatan ematen diren nibel aldaketak noiz eman diren identifikatu daiteke, eta informazio hori zuzenean webgune batean dagoen plataforma batean biltzen da.